

**RICCARDO GAZZANIGA**

**IZARRAK UKITU**

**GENITUEN**

Mundua aldatu duten  
txapeldunen historiak



*desclée*

RICCARDO GAZZANIGA

# IZARRAK UKITU GENITUEN

Mundua aldatu duten  
txapeldunen historiak

Itzulpena

Lurdes Auzmendi Aierbe

*desclée*

Jatorrizko izenburua:  
ABBIAMO TOCCATO LE STELLE

Rizzoli © 2018, Mondadori Libri S.P.A., Milano

Testua © Riccardo Gazzaniga

Ilustrazioak © Piero Macola

Itzulpena © Lurdes Auzmendi Aierbe

Ute Körner Literary Agentearen bidez Negoziatutako eskubideak

[www.uklitag.com](http://www.uklitag.com)

© 2021, DESCLÉE DE BROUWER, S.A.

Henao, 6 - Bilbao

Tlf.: 94 423 30 45

[www.desclee.eu](http://www.desclee.eu)

[info@desclee.com](mailto:info@desclee.com)

Eragotzita dago, legeak ezarritako salbuespenetan izan ezik, obra honen edozein eratako berregintza, komunikazio publiko eta moldaketa, aurrez jabetza intelektualaren titularren baimena eskuratzen ez bada. Eskubide horien urraketa jabetza intelektualaren aurkako delitu bezala har daiteke (Zigor Kodearen 270. artikulua eta hurrengoak).

ISBN: 978-84-330-3152-5

Legezko gordailua: BI-1233-2021

# SARRERA

2015eko abuztuko larunbat bero batean argitaratu nuen Facebooken historia hauetako lehenengoa: Peter Norman abiadura-lasterkari australiarrari buruzko artikulua mundu guztian partekatu eta hizkuntza desberdin askotara itzuli zen, milioika irakurlerengana iritsiaz.

Historia hori ez zen izan espero gabeko arrakasta bat bakarrik, baizik baita dominoko fitxa bat ere izan zen, beste hainbat atletari buruzko historiak idaztera bultzatu ninduen. Batzuk egunkarietarako artikulua inspiratu zituzten, beste batzuk antzerki lan bilakatu edo eskolaz eskola ibili ziren, beste batzuk ezezagun iraun zuten. Gaur hemen biltzen ditut guztiak.

Tommie Smith eta John Carlosengandik hasi eta Yusra Mardinirenganaino, Alex Zanardirengandik, Kathrine Switzerenganaino, orrialde hauetan aurkituko dituzun izen batzuk oso ezagunak dira eta beste batzuk ezezagunak: bide erraza aukeratu ez duten emakumeak eta gizonak, baina kirolaren mugak gainditu eta pertsona askoren bizitza markatu dutenak.

Denok behar ditugu heroiak, nik uste. Baina ez ditugu behar komikietako edo telebista sailetako pertsonaiak, gizagaindiko dohainez hornitutako izakiak.

Gizaki osoki gizatiarrak behar ditugu, beraien hauskortasunean eta konplexutasunean. Balentria apartak egiteko gauza diren pertsonak, baina izerdi, esfortzu eta ausardiarekin.

Beren indarra eta talentua garaipen pertsonalerako ez ezik, eskubideak eskatzeko eta aurreiritziak uxatzeko, arauak berri-dazteko eta besteei laguntzeko ere erabiltzeko gai diren gizonak eta emakumeak. Errekorren harresiak ez ezik, historiakoak ere hautsi dituzten atletak eta kirolariak.

Agian ez gara berdintzeko gauza izango, baina bizitzak une erabakigarri baten aurrean jartzen gaituenean beraien ereduan oinarritu ahalko gara.


Pertsona hobeak izateko.

Bidezkoa egiten saiatzeko.

# AURKIBIDEA

Nahi ez dutenentzat eta ezin dutenentzat. <b>Tommie Smith eta John Carlos</b>	11
Geratzen zitzaidan erdiari begiratu diot. <b>Alex Zanardi</b>	23
Ez nauzu geraraziko. <b>Katherine Switzer</b>	31
Ezinezkoa hitz bat besterik ez da. <b>Muhammad Ali</b>	41
Gauzak ezberdinak izan daitezke. <b>Jesse Owens eta Lutz Long</b>	53
Ahalik eta hobekien egin bazenuen, orduan ondo egin zenuen. <b>Surya Bonaly</b>	63
Gizon bat hiltzen badut, gizon bat maitatzen badut. <b>Emile Griffith</b>	73
Ezinezkoan saiatu nahi dut, egin daitekeela erakusteko. <b>Terry Fox</b>	83
Lagunak, hala ere. <b>Martina Navrátilová eta Chris Evert</b>	93
Txapeldunak jaio egiten dira, bai, baina baliteke inoiz ez iristea horretara. <b>Gino Bartali</b>	101
Zenbaki bat bakarrik ez. <b>Yusra Mardini</b>	111
Egiantan garrantzitsua dena. <b>Jermain eta Bradley</b>	121
Ukabilak hutsartean <b>Johann Rukeli Trollman</b>	129
Harro partaide izateaz. <b>Peter Norman</b>	141

Nahi ez  
dutenentzat  
eta ezin  
dutenentzat.



# 1

## **TOMMIE SMITH ETA JOHN CARLOS**

1968ko urriaren 16ko gaueko 22:00ak dira.

Mexiko Hiriko Estadio Olinpikoko harmailak jendez gainezka daude itxaronaldi eta emozioak eragindako zarataren erdian, 200 metroko zortzi finalistak irteera mokorretan ezartzen dituzten bitartean.

Mundu guztia hirugarren kalera begira dago, Tommie Smith amerikarranera.

Jet deitzen diote.

Horrela deitzen diote oinkada izugarri luzatu eta harrapaezin bihurtzen duen bere abiadura harrigarriagatik.

Tommiek hogeita lau urte dauzka, garaia eta meharra da, arina. Lasterketa poliki hasten du, gero turboari eragin eta hegan egiten du pistan.

Munduko marka dauka 20 segundo garbirekin eta bere buruari irabazi diezaioke eta zorigaiztoko muga horren azpitik gera daiteke.

Baina bere garaipena ezin da jada segurutzat jo.



Bere ondoko kalean, laugarrenean, beste mutil beltz bat ari da prestatzen, oso garaia bera ere, baina gihartsuagoa.

John Carlos du izena, 23 urte ditu eta amerikarra da, Tommie bezala.

John korrikalari eztandagarriagoa da: indartsu hasten da eta pistan bere muskuluetatik ateratzen du indarra mailu pneumatiko batek bezala.

Joko Olinpikoetarako sailkapenean, aste batzuk lehenago, Johnek Tommieri irabazi egin zion, 19,92 bikain batean korrika eginaz, baina denbora ez zitzaion baliozkotu, zeramatzan zapatilak ez zirelako arauzkoak, zola azpirako baimentzen zen iltze kopurua baino ilara gehiago zeramazkielako.

Tommie eta John Kaliforniako San Jose Unibertsitatetik datoz: Speed City deitzen diote, mundu mailako abiadura-lasterkariak produzitzen dituelako.

Klaseko eta taldeko lagunak dira, baina ezin pertsona desberdinagoak dira.

Smith lasaitzat daukate, hitz gutxi eta irribarre askokoa da, baina ez da inorekin fidatzen.

Carlos, bestalde, zalapartari bat da, liskartsua eta mundu guztiari esaten dio zer pentsatzen duen, hitzik aurreztu gabe. Ikasketetan dislexia arazoak dauzka, baina irakasleak ez dira sekula horretaz arduratu. Inongo unibertsitateri ez dio gehiegi axola John bezalako mutil beltz baten notak, korrika egin eta irabazten duen bitartean.

Eta beste horrenbeste gertatzen da Tommierekin, nahiz eta oso ikasle ona izan eta gauean berandura arte egon liburuekin jo eta ke: Speed Cityko unibertsitateak domina makinak sortzen ditu.

Smithek eta Carlosek korrika egin beharra daukate gainerakoan pentsatu gabe.

Baina, bestalde, bi mutil horiek atletismoko pistetatik haratago doan amets bat daukate eta lantzen dute.

Beltzentzat eskubide gehiago nahi dituzte eta, Joko Olinpikoak baino lehen, Giza Eskubideen aldeko Egitasmo Olinpikoarekin bat egin zuten, Estatu Batuetako beste atleta beltz askorekin batera.

Beraien eskakizunak betetzen ez baziren Jokoetara ez joateko mehatxua egin zuten.

Hegoafrikako eta Rhodesiako estatu arrazistak baztertzeko eskatu zuten, zuela gutxi Jokoetan berriro onartuak izan baitziren, apartheid politikak gorabehera.

Muhammad Ali boxeolari beltzari pisu astunetako txapeldun titulua itzultzeko exijitu zuten, Vietnamen borroka egitera ukatu ondoren kendu ziotelako.

Gizon beltzak ere AEBetako kirol taldeen entrenatzaile bihurtu ahal izatea exijitu zuten.

Avery Brundage, Nazioarteko Batzorde Olinpikoko presidentearen dimisioa exijitu zuten, Hitlerren Alemanian 1936ko Joko Olinpikoen antolaketan lagundu zuen gizona, arrazistatzat jotakoa.

Eskatu zuten New Yorkeko Atletico Klub ospetsuak atleta beltzak onartu zitzala, sekula ezin zirelako bertako kide izan: klubak zortzi mila kide dauzka eta denak zuriak dira.

Baina mutil horien borroka kiroletik haratago doa. Unibertsi-tateko ikasle beltzek jasaten duten diskriminazioa ezabatzeko borrokatzen dira, ezin baitute apartamentu bat alokatu inork bat ematen ez dielako, ezin dira ikasketa talde mistoetara joan eta

beltzen artean bakarrik geratu behar dute, susmoz eta etsaitasunez begiratzen dietelarik.

Morroi horiek domina makinak bezala bakarrik existitzen dira, txapeldun horiek ez dituzte pertsonak bezala tratatzen, lasterketa zaldi bezala baizik.

“Pistan Tommie Smith naiz, munduko azkarrena. Baina handik atera ondoren, berriro beltz zikin bat besterik ez naiz”.

Bere eskaerak gorabehera, Giza Eskubideen aldeko Egitasmo Olinpikoak Hegoafrika eta Rhodesia baztertzea lortu zuen, besterik ez. Eta Jokoen kontrako boikota ez zen bete, atleta batzuek kontra bozkatu zutelako azken batzar erabakigarrian.

Eta horrela, 1968ko urriko arratsalde hartan, Tommie Smith eta John Carlos Mexiko Hiriko pistan zeuden garaipen olinpikoagatik lehiatzeko, baina beraien bihotzetan ez zuten borroka abandonatu.

Tommie zen bien artean urdurien zegoena, finalaurrekoaren ondoren ezkerreko izterrean min bat sentitu zuelako.

Lurrera erori eta ohatila batean eraman zuten. Izotzarekin eta masajearekin tratatu zuten bi orduz, baina ez daki bere hankak utsiko ote dion.

Etsipen izugarria litzateke, bizitza egun honetarako lanean eman ondoren.

“Zoaz korrika egitera, Tom. Baina ez ekarri etxera bigarren postu bat. Bestela, berriro kotoi soroetara lanera joan beharko duzu zure anaiekin batera”, esan zion aitak, artean institutuan zegoela.

Eta Tommiek esandakoa egin zuen. Irabazi egin zuen, beti. Domina eta marka ilara bat soro haietatik ihes egin eta etorkizuna

eraikitzeko, korrika egitea eta irabaztea direlako bere arma bakarrak.

Baita John ere, New Yorken sortua eta hazia, Joko horiekin egin du amets bizi osoan.

Umetan igerilari handi bihurtzearekin egiten zuen amets, aitak azaldu zion arte zergatik ezin zuen igerilekura bidali.

“Beltzak ezin dira joan zuriak entrenatzen duten igerilekuetara”.

Eta orduan John, Olinpiadetara, korrika iritsi zen. Igerilekuetan atzera bota zezaketen eta baita eskolan ere, irakasleek dislexiarena ahaztu zezaketen eta itxurak egin ez zutela ikusten John mutil bat zela ikasteko laguntza bakarrik behar zuena. Baina inork ezin zuen ahaztu dominak ze abiadatan irabazten zituen.

Bere kalean egokitzen zen bitartean, beltzen eskubideen aldeko protesta baketsuak gidatu zituen Bakearen Nobel Sari Martin Luther Kingi egun batean egin zion galderaz oroitu zen. Martin arratsalde mexikar hau baino sei hilabete lehenago hil zuten atentatu batean.

“Zergatik egiten duzu hau, King agurgarria? Zergatik arriskatzen duzu zure bizitza?”.

“John, bakarrik borroka egin nahi ez dutenengatik egin behar dut nik. Bakarrik egin ezin dutenengatik”.

Tira, orain John Carlos ere Mexiko Hirian zegoen, beraientzat. Nahi ez dutenentzat eta ezin dutenentzat.

“Zuen postuetara” dio epaileak.

Finalistak prest daude. Oinak mokorretan, behatzak zabalik tartanezko pistan.

“Gertu”.